

Euskararen erabilpenaren kale-neurketaren inguruko gogoetak

Sarrera

Ezer baino lehen, Euskal Kulturaren Batzarreak burutu duen euskararen erabilpenaren kale-neurketa honen garrantzia azpimarratu nahi nuke.

Orain arte, Euskal Herriko ezagupenari, eta zenbait udalerrri, sektore eta zonaldetako erabilpenari buruzko hainbat datu izan badugu ere, euskararen erabilpen errealari buruzko datu orokorra falta zitzaigun. Oraingo datu hauek ikuspegi orokor oso-oso ez bada ere, zonalde hiritartu edo urbanoarena bederen eskaintzen digute.

Lan hau beraz, ekarpen ezin interesgarriagoa da,

«Normalean zalantzaren bat baldin badago automatikoki erdara erabiltzen da: herri handietako denda berri batetara sartzen diren ia euskaldun guztiak beren lehen hitza erdaraz egiten dute»

«Harremana idatzizkoa bada, euskaldunen gehiengoak oraindik ere erdara erabiliko du»

hizkuntz normalizazioaren alorrean dihardugunontzat, ikerketarako eta lanerako azterna berriak eskaintzen dizkigulako.

Euskararen erabilpenaren kale-neurketak

Kale-neurketetan neurtzen dena euskararen erabilpen erreala da.

Euskararen ezagupen-mailaren bilakaerak normalizazio-prozesua nola doan diagnostikatzeko datu garrantzitsua ematen digun arren, euskararen kale-neurketek bilakaera horren benetako egoera adieraziko digute.

Egoera minorizatuan dauden hizkuntzen erabilpena ordea, erregularitate batzuren barnean gertatu ohi da. J.A. Fishmanek erabili zuen inkestan egiten diren galderez baliatuz, honela formula genezake arazoa, Lluís Aracilek planteiatutako bideari jarraiki (cf. J.A. Fishmanen *Sociología del lenguaje* eta Ll. V. Aracilen *Dir la realitat*): zer gertatu behar da bi pertsonen artean euskara erabil dezaten? Bada, bi pertsonen artean euskaraz egin dezaten honako gauza guzti hauek gertatu behar dute:

- Hitzegiten duenak euskaraz jakitea.
- Euskaraz jakinda ere, euskaraz egin nahi izatea.
- Aurrean duenak euskara jakitea (eta bat baino gehiago badira denek jakitea).
- Hitz egiten duenak besteak ere euskaraz badakiela jakitea, normalean zalantzaren bat baldin badago automatikoki erdara erabiltzen bait da (herri handietako denda berri batetara sartzen diren ia euskaldun guztiak beren lehen hitza erdaraz egiten dute).
- Gaia arrunt xamarra eta ez teknikoa izatea, bestelagaitasun faltaz edo esan nahi dena behar den zeahaztasun guztiz uler dadin, hizkuntzaz aldatu egingo bait da.

- Harremana ahozkoa izatea. Idatzizkoa bada, euskaldunen gehiengoak oraindik ere erdara erabiliko bait du.

Aipatu ditugun erabilpen erregularitate hauek hiztunen arteko harreman arruntetan gertatu ohi dira eta erakusten digutenez, hizkuntz minorizatua erabili ahal izateko ezinbestekoa da guztiak bete daitezen: mintzo denak jakitea eta solaskideak jakitea eta gaia arrunta izatea eta ahoz izatea, etab. Horietako bakar batek huts egiten badu automatikoki biak erdarara pasako dira (euskaltzale sutsuen salbuespenak salbuespen).

Hizkuntzak noski funtzio desberdinak ditu. Ikus dezagun Juan Covarrubiasek egiten duen sailkapena (cf. "Normalización y planificación en el País Vasco" in *Euskara Biltzerra - II. Euskal Mundu-Biltzerra*):

- F1: Esparru legal eta ofiziala.
- F2: Hezkuntza
- F3: Administrazio Publikoa
- F4: Merkataritza eta Industria
- F5: Komunikabideak
- F6: Erlijioa
- F7: Segurtasuna eta Ordenu Publikoa
- F8: Osasungintza
- F9: Aisialdia
- F10: Famili-giroa eta interpertsonala

Euskal Kulturaren Batzarreak berak honela berrinterpretatu zituen funtzio hauek *Hizkuntz normalkuntzarako ekinbideak udalerrri mailan* oraingoz argitaratu gabeko bere txostenean:

- Funtziodeterminanteak: irakaskuntza, administrazioa, lan-mundua, komunikabideak.
- Funtzio nagusiak: Kultur mundua, zerbitzu publikoak, funtzio ludikoa eta aisia.
- Funtzio afektiboak: Familia eta lagun artea.

Lehen aipatu ditugun erregularitateak garbiki funtzio afektiboetan gertatzen dira, beste bi funtzioetan

«Hizkuntz minorizatua erabili ahal izateko ezinbestekoa da: mintzo denak jakitea eta solaskideak jakitea eta gaia arrunta izatea eta ahoz izatea, etab. Horietako bakar batek huts egiten badu automatikoki biak erdarara pasako dira»

*«Aurten egiten
ari den erroldan
familia barruko
hizkuntz
erabilpenari
buruzko galdera
ere sartu da.
Laister beraz,
erabilpen honi
buruzko lehen
datua ezagutzeko
moduan izango
gara; beti ere
noski,
subjektiboki
ebaluatuta»*

solaskideez gain beste faktore batzu sartzen direlako (erabaki politiko zuzenak, talde egituratuak, harreman hierarkikoak, etab.). Eta hain zuzen ere funtzio afektiboak dira kalean eta leku publikoetan nagusiki gertatzen direnak.

Kalean ematen diren ia harreman guztiak famili edo lagun artekoak dira; ezezagunen arteko harremanik ia ez da gertatzen; ezta laneko edo bestelakorik.

Kalean hizketan doan jendeak elkar ezagutzen du (kasu hauetan erabilpena murrizteko eraginik handiena duen zalantzaren faktorea desagertu egiten da beraz), gaiak arrunt xamarak izan ohi dira (apenas hartzen den erabaki garrantzitsurik kalean) eta ahozko harremanak dira.

Guzti hau kontutan hartuta esan genezake famili barruko harremanen ondoren euskara gehien erabiltzen den esparru nagusienetako bat dela kale-neurketetan jasotzen dena. Bilduko duguna beraz, euskararen erabilpenik optimoenetako bat izango da.

Hala ere, ezagupenarekin parekatuta, erabilpena eskasa da eta hain zuzen ere, bien artean dagoen jautzia, lehen aipaturiko erabilpen erregularitateetatik dator.

Aipatu besterik ez, aurten egiten ari den erroldan familia barruko hizkuntz erabilpenari buruzko galdera ere sartu dela. Laister beraz, erabilpen honi buruzko lehen datua ezagutzeko moduan izango gara; beti ere noski, subjektiboki ebaluatuta. Datu horiek eskura ditugunean, interesgarria izango da hemen ditugunekin konparatzea.

Kale-neurketa honen testuingurua

Neurketaren esparrua:

Neurketa honetan Euskal Herri osoko 10.000 biztanletik gorako herri guztiak hartu dira (hiruren batetan egitea ezinezkoa suertatu den arren).

Populazioaren barne-mugimenduen ondorioz ordea

(lana, erosketak, ikasketak, etab.), herri horietan ere herri txikietako jendea neurtu da (orokorki euskaldunagoak direnak).

Neurketa honetan sartzan diren herriak Euskal Herriko zonalde hiritartua osatzen dute, kanpo geratu direlarik herririk euskaldunenak eta erdaldunenak. Hala ere, neurtutako herrien ezagupen-maila, Euskal herri osoari dagokiona baino baxuagoa da. Honek 10.000 biztanletik beherako herriak, 10.000 biztanletik gorakoak baino euskaldunagoak direla esan nahi du orokorki.

Neurketaren edukia:

Neurketa hau egiteko erabili diren erizpideak kontutan hartuta, kaleko erabilpenaren ikuspegi orokorra emateko balio dute.

Datu hauen bidez jakin ahal izango duguna zera da: populazio osoaren multzotik zenbat diren kalean eta une berean euskaraz egiten dutenak. Honek, noski, ez du esan nahi horiek bakarrik direnik euskaraz egiten dutenak, baizik eta euskararen erabilpenaren proportzioa halakoa dela; alegia, ez dugu jakingo zenbatek egiten duen euskaraz, baizik eta zenbat egiten den euskaraz.

Erabilpenaren datuak ordea, hainbat aldagairen arabera eman daitezke: adina, sexua, hizkuntz erregistroa, zonalde geografikoa, zonalde linguistikoa, etab. Dagokigun neurketan aldagai horietako batzu aukeratu dira eta horiek dira guk aztertuko ditugunak.

Datu hauek, herrietako erabilpen orokorrera hurbiltzeko baliagarriak suerta badaitezke ere, neurketa lagin (mostra) eta zonalde jakin batzutara mugatu zenez, ez da komeni udalerritako datutzat erabiltzea, hainbat kasutan funtsezko aldaketak egon bait daitezke.

Esan beharra dago ere euskara/erdara binomioa erabili dela neurketan eta nahiz eta erdarakadak edo euskara 'txarra' erabili, pertsona guzti horiek euskara laukitxoan bildu direla.

Komeni da beraz, neurketa honen datuen mugak

«Neurtutako herrien ezagupen-maila, Euskal herri osoari dagokiona baino baxuagoa da. Honek 10.000 biztanletik beherako herriak, 10.000 biztanletik gorakoak baino euskaldunagoak direla esan nahi du orokorki»

«Komeni da neurketa honen datuen mugak jakitea eta beraien erabilpena muga horietatik ez ateratzea»

«Ditugun datuen arabera, 10.000 biztanletik gorako Euskal Herriko udalerrietako euskaldunen portzentaia %18koa da»

«Kale-neurketa honetan jasotako erabilpen-portzinoa ordea, %7,6koa da»

«Datu orokor hau, gehienok uste genuena baino altuxeagoa izan dela esatera ausartuko nintzateke. Egoeraren larritasuna azaltzen digu, baina itxaropenarako bidea ere zabaltzen du»

jakitea eta berauen erabilpena muga horietatik ez ateratzea.

Ohar teknikoak.

Erabilpenaren datuen konparaketarako, 86ko erroldari dagozkion ezagupenaren datuak erabili dira. Datu haiek bildu zirenetik, neurketa egin zenera 4 urteko aldea dagoenez, pentsatzekoa da, euskaldunen kopurua igo egingo zela. Ezagupenaren eta erabilpenaren arteko desoreka handixeagoa izango da beraz.

Ezagupenaren datuak ematerakoan bestaldeia-euskaldunak ez dira kontutan hartu, baina erabilpenean pentsa daiteke, horietako batzu ere neurtuko zirela, batipat guraso eta haurren arteko harremani dagokienean, zenbait guraso ia-euskaldunek beren hurrei hitz batzu euskaraz zuzendu ohi bait dizkiete.

Neurketa hau epe jakin batzutan errepikatuko balitz, erabilpenaren bilakaerari buruzko indizeak atera genitzake, ezagupen-zonaldeen ondoan erabilpen-zonaldeak markatuz.

Bestalde, tauletan azalduko diren indizeak, ezagupen-mailaren eta erabilpen-mailaren arteko proportzioari dagozkio:

$$\text{Indizea} = \frac{\text{Erabilpen \%}}{\text{Ezagupen \%}}$$

Emaitzak

Emaiza orokorrak

A) Euskal Herri osoari dagokionez

Ditugun datuen arabera, 10.000 biztanletik gorako Euskal Herriko udalerrietako euskaldunen portzentaia (euskaraz ongi hitzegiteko gai direla aitortu dutenena) %18koa da.

Kale-neurketa honetan jasotako erabilpen-proporzioa ordea, %7,6koa da.

Datu hauetatik bi ondorio garbi atera genitzake, bata ezkorra eta bestea aitzitik, baikorra:

- Ezagupenetik erabilpenera galera handia dagoela.
- Hala ere, hizkuntz komunitatearen konpaktazioa oraindik ere trinko xamarra dela.

Begibistakoa da euskararen presentzia kalean oso murrizta dela, eta datu horrek bakarrik alarma guztiak martxan jarri beharko lituzkeela. Egoera, zalantzarik gabe, ezkorra da.

Hala ere, datu hori ezagupenaren datuarekin konparatzen badugu zera ateratzen zaigu: 5 euskaldunetatik 2k euskaraz egiten dutela kalean 10.000 biztanletik gorako herrietan. Kopuru honen arabera, euskaldunen arteko harremanak estuak eta ugariak dira, probabilitateen-kalkulua jarraituz 2 edo 3 euskaldun egokitzeko aukerak txikiagoak bait dira (cf. Txillardegiren *Gizarte Elebidunen Azterketa Matematikoa*).

Nahiz eta erdal komunitateak euskaldunen hizkuntz-komunitatea inguratu eta erabilpen mailako higadura handia izan, euskarak bere giza-sarea mantendu egiten du.

Datu orokor hau, gehienok uste genuena baino altuxeagoa izan dela esatera ausartuko nintzateke. Egoeraren larritasuna azaltzen digu, baina itxaropenerako bidea ere zabaltzen du euskaldungoaren zati handi batek hizkuntzaren erabilpenari eustea (cf. Txepetxeren *Un futuro para nuestro pasado* eta *El espacio bilingüe*).

Kontutan izanik, aipatu berri ditugun hizkuntza erabiltzeko bete behar diren baldintza guztiak, euskaldunen kopuru urria, euskaldun elebakarrik ez dagoela, euskaldunen sakabanaketa hirietan, etab., bazirudien ezagupenetik erabilpenera izango genuen jauzia dezente handiagoa izango zela. Hartu dugun sorpresa beraz, ez da hain txarra izan.

«Ezagupenari dagozkion datuak kezkarriak baldin badira, erabilpenari dagozkion datu hauek egoeraren alarmagarritasuna adierazten dute»

«Gipuzkoako kasuan ezik, euskararen erabilpena erabat marginala da Euskal Herriko hirietan»

B) Adinaren arabera

Jaso diren datuak hauek dira (Indizeak noski, Hego Euskal Herriari dagozkio bakarrik, nahiz eta Iparraldeko herriak sartuko balira asko ez aldatu seguruenik):

Adina	0-14	15-24	25-64	65 >
%	11,2	5,1	6,5	10,7
Indizea	0,55	0,26	0,40	0,46

Itxaropengarria da proportzionalki, haurren artean egotea euskaraz gehien egiten duten euskaldunen indizea (zaharrak baino euskaldun gutxiago izanik, euskara gehiago darabilte). Neurketa egin zenean, zekitenen erdiak baino gehiago ari ziren euskaraz kalean.

Hau ordea ez da oso harrigarria, haurren sozializazio-esparruak muga estu batzuren barnean aurkitzen bait dira normalean: familia, eta eskola, auzo edo iharduera-aren bateko lagunak.

Arazoak sozializazio-esparru horiek zabaltzen direnean hasten dira (eskolaz kanpoko iharduerak, lagunarteak, lana, unibertsitatea, ligeak, etab.). Identifikazio-arazoen eta hizkuntz-inertziak dimentsio berria hartzen dute, kasu askotan gazte euskalduna erdal dinamikan irentsiz.

Egoera minorizatu batetan, hizkuntza nagusiak funtzio sozial guztiak betetzen ditu, eta batzuek berak besterik ez ditu betetzen gainera. Hizkuntza nagusia 'neutro' modura ikusten da, hizkuntza minorizatuak aldiz 'markatua' da (zentzu peioratiboan). Mekanismo psikosozial gehienek beraz 'marka' hori gordetzera eramango dute, azkenik inertziak 'konturatu gabe' beti hizkuntza nagusia erabiliko delarik.

Datuak, beren aldetik, frogatu egiten dute adin-jauzi honetan ematen den galeraren garrantzia, erabat kezkarria bait da gazteen artean gertatzen dena: lau euskaldunetatik bakar batek darabil euskara kalean.

Helduen eta zaharren kasuan ez dago gauza handirik esateko, erdibidean aurkitzen direla baizik. Esan daitekeen gauza bakarra zera da, erabilpen-proporzioetan aldea handi xamarra bada ere, indizeetan ez dela halako alderik ikusi. Beraz badirudi kaleko erabilpenean 25 urtetik gorakoek joera berdintsuak agertzen dituztela.

C) Herrialdeka

- Erabilpena orokorki:

Herrialdekako erabilpen-proporzioen ordenua, ezagupen-proporzioei dagokien bera da (Iparraldearen salbuespenarekin): Gipuzkoa (%17,0), Bizkaia (%5,4), Iparraldea (%4,3), Araba (%2,0) eta Nafarroa (%1,7).

Ezagupenari dagozkion datuak kezkarriak baldin badira, erabilpenari dagozkion datu hauek egoeraren alarmagarritasuna adierazten dute. Eta kontutan izan behar da, haseran aipatu dugun bezala, kale-neurketan agertzen dena, erabilpenik optimoenetakoa dela.

Gipuzkoako kasuan ezik, euskararen erabilpena erabat marginala da Euskal Herriko hirietan.

- Ezagupenaren eta erabilpenaren arteko indizeak

Herrialdeen artean indizeen korrelazioa, erabilpenari dagokion korrelazio bera da.

Arabaren ezik, indizerik altuena beti haurrek ematen dute, Gipuzkoakoa izugarri altua delarik: 3 haur euskaldunetatik bik euskara omen darabilte. Fenomeno hau ulertzeko, kontutan izan behar da, 86tik hona adin hauetan eman dela ezagupenaren igoerarik altuena eta orduko ia-euskaldun asko 90erako euskaldun duta egon zitekeela. Edozein kasutan, euskararen normalizazio-prozesuari begira datu hau oso baikorra da.

Araba eta Nafarroan indizerik txikiak zaharrek eman dituzte. Kontutan izanik bi herrialde horietan 10.000 biztanletik gorako herri guztiak zonalde erdaldunetan aurkitzen direla, garbi dago berauetan bizi diren zahar euskaldunak (normalean zonalde euskaldunetako herri txikietatik hirietara emigratutakoak) erabat deserroturik

*«Daturik
kezkagarriena
beti bezala,
gazteena da,
indizeetan ere
herrialde
guztietan
txikiena bait da
(zaharrena
txikiagoa den
Araba eta
Nafarroan ezik)»*

eta desintegraturik aurkitzen direla. Pertsona hauetako askok gainera euskara bere herrian utzi zuen, leku-emigrazioa hizkuntz-emigrazio ere bilakatuz.

Daturik kezkarriena beti bezala, gazteena da, indizeetan ere herrialde guztietan txikiena bait da (zaharrena txikiagoa den Araba eta Nafarroan ezik). Izan ere, Gipuzkoan ezik %1 eta %3 artean dabilta erabilpen-proporzioak. Gazteen kasuan oso adierazgarria da berauek izatea azterketa soziolinguistiko eta galdeketa guztietan euskararen aldeko defendatzailerik sutsuenak, eta aitzitik erabilpen-proporziorik eskasena ere beraiek ematea: euskararen inguruan agertzen den 'gezur sozialaren' islada zuzena dirudi jazoera honek.

*«Gazteen kasuan
oso adierazgarria da berauek
izatea
euskararen
aldeko
defendatzailerik
sutsuenak, eta
erabilpen-
proporziorik
eskasena ere
beraiek ematea»*

Bizkaian, Nafarroan eta Gipuzkoan haurren indizea erdiaren inguruan edo goitik ibiltzea aitzitik, baikorra da. Ez dugu ahaztu behar haur horiek hiritarrak direla (ez direla herri txiki euskaldunetakoak alegia) eta beraiek izango direla benetan euskara hiritartzeko aukera izango dutenak. Hain zuzen ere, hauxe da normalizazio-prozesuaren gakorik garrantzitsuenetako bat: nola lortu haurren arteko erabilpen-indize horiei gazteen artean mantentzea.

Indizerik txikienak herrialderik erdaldunenetan ematen dira (Arabian eta Nafarroan). Hau ez da harrizkoa, euskaldunak oso gutxi izanik, elkarren arteko elkarrizketak gertatzeko probabilitateak oso txikiak direlako (Fishmanen legeak).

Herrialdeka Gipuzkoa izan da ezberrik gabe ondoriorik onenak eman dituen, espero zitekeen bezala: kaleko euskararen erabilpena %17an kokatu da eta eman duen indizea 0,45ekoa izan da. Normalizazio-prozesuari ekiteko abiapuntu on xamarra beraz.

Iparraldeari dagokionez, ezingo dugu indizerik eskaini, biztanleriaren hizkuntz ezagupenari buruzko datu orokorrik ez dagoelako. Erabilpenaren kasuan, murrizta dela aitortu beharra dago. Hala ere, Arabakoa eta Nafarroakoa baino altuagoa da, eta altuena hurrek eman dute. Kontutan izanik, Iparraldeko hiri nagusiez ari garela ezin ukatu sorpresa ona izan denik.

D) Tipologiaka

Garbi dago, ezagupena gero eta handiagoa izan, orduan eta erabilpen altuagoa gertatzen dela.

Indizeei dagokienez ordea bi joera nabaritu ditugu:

- Indizerik haundiena (0,8) tipologiarik euskaldunenean txikienak tipologiarik erdaldunenetan eman dira.
- Herrien tamaina handituz doan heinean, indizeak txikituz doaz.

Badirudi bi fenomeno horiek hizkuntz komunitatearen konpaktazio/disgregazio fenomenoarekin daudela lotuta. Herria oso erdalduna bada edo handia bada, arazo berbera aurkitzen dugu: euskaldunak aurkitzea ala identifikatzea zaila da, eta beraz, erdararen erabilpen indizea altuagoa da.

Azaldu ditugun joera hauen barnean ordea, badira salbuespenak, hainbat herri erdaldunetan jasotako indizeak oso-oso altuak izan bait dira. Kasu horietan, euskaldunen arteko trinkotze-prozesu aurreratu baten aztarna garbiak ikus daitezke. Adibiderik garbiena Lizarrako haur eta gazteena izango litzateke:

	Haurrak	Gazteak
Ezagupena	18,5	9,1
Erabilpena	28,8	8,0
Indizea	1,6	0,9

Beste salbuespena hiriburuetan aurkitzen dugu, beraz erabilpena 50.000 - 100.000 biztanle tarteko herrietan baino altuagoa bait da. Kontutan izan behar da ordea, hiriburuak zerbitzu-hiri izan ohi direla (administrazioa, era guztietako establezimenduak, etab.) eta beste hirietan baino zonalde euskaldunetako jende gehiago biltzen dela beraz.

Aipagarria da ere, zonalde euskaldunenek ematen duten indizetik (0,8), hurrengo indizeetara (0,5) dagoen

«Hauxe da normalizazio-prozesuaren gakorik garrantzitsuenetako bat: nola lortu haurren arteko erabilpen-indize horiek gazteen artean mantentzea»

«Badira salbuespenak, hainbat herri erdaldunetan jasotako indizeak oso-oso altuak izan bait dira. Kasu horietan, euskaldunen arteko trinkotze-prozesu aurreratu baten aztarna garbiak ikus daitezke»

aldea. Jauzi honek aipatu berri dugun fenomenoa baieztatu egiten digu.

Azken oharra

Arestian aipatu dudan bezala, azterketa honen garrantzia oso handia bada ere, kontu handiz ibili beharko da bertan azaltzen diren emaitzak sozializatzerakoan, euskararen normalizazioa lortu nahi dugunontzat tresna ezin baliagarriagoa gerta dakizkigukeen bezala, azken bolada honetan euskararen normalizazioaren aurkako giroa zabaldu eta gizarteratu nahi duten sektoreek ere erabil ditzaketelako gure aurka.

Maiz aipatu ohi da euskara gaixo dagoela eta datu hauek uste hori berretsi egiten dute. Hala ere, badira gaixo sendatu beharrean, eutanasia aplikatu nahi diotenak. Horregatik, neurketa hau gaixotasunaren diagnosi hobea egiteko erabili behar dugu, baina ahaztu gabe izan daitezkeela datuotan oinarriturik euskara 'koman' dagoela esango dutenak eta bizi-arnasa ematen dioten aparailuak deskonektatu nahiko dituztenak.

«Badira gaixoa
sendatu
beharrean,
eutanasia
aplikatu nahi
dietenak.
Horregatik,
neurketa hau
gaixotasunaren
diagnosi hobea
egiteko erabili
behar dugu»

Kike Amonarriz
SIADeco Ikerketa-Taldeko partaidea